

**Ebazpena: R 73/2023**

**Espedientea: 8/2019**

Vitoria-Gasteiz, 2023ko ekainaren 23a.

Euskal Autonomia Erkidegoarekiko Ekonomia Itunaren Arbitraje Batzordeak, Violeta Ruiz Almendral batzordeburu andreak eta Sofía Arana Landín batzordekide andreak eta Javier Muguruza Arrese batzordekide jaunak osatutakoak, honako hau erabaki du:

## **ERABAKIA**

Zerga Administrazioako Estatu Agentziak (aurrerantzean, ZAEA) Gipuzkoako Foru Aldundiaren (aurrerantzean, GFA) aurka planteatutako gatazkari buruzkoa, zeinaren helburua baita zehaztea nork duen eskumena MSL zergapekoak 2013an egindako lan pertsonalaren gaineko atxikipenak ordainarazteko; zehazki, auzia zerbitzuak lurralde erkidean eskusiboki eman zituzten langileen lan-atxikipenen ingurukoa da. Gatazka hori Arbitraje Batzorde honetan izapidetzen ari da, 8/2019 espediente-zenbakiarekin.

## **I. AURREKARIAK**

1.- MSL egoitza fiskala Mallorcan duen sozietate bat da, hotelen kudeaketan eta aholkularitzan diharduena.

2.- Zerbitzuak eksklusiboki lurralde erkidean eman bazituzten ere, Gipuzkoako lantokira adskribatu zituzten hiru langile daude; hori dela eta, hiru langileon 2013-2015 aldiko lan-atxikipenak GFari sartu zitzaizkion.

3.- Aipatu lan-atxikipenak ordainarazteko eskumenarekin lotutako egiaztapen-prozedura bat abiatu zen 2017ko apirilaren 5ean, 2018ko maiatzaren 24ko data duen txosten batekin amaitu zena.

4.- ZAEAk, 2018ko uztailaren 27an, aipatutako lan-atxikipenak bidaltzea eskatu zion GFari.

5.- GFAk, 2018ko urriaren 26an, erantzun zuen, 2013ko bidalketa egiteari uko eginez preskripzioa argudiatuz eta gainontzekoak ontzat joz.

6.- ZAEAk, 2018ko abenduaren 21ean, inhibititu zedila eskatu zion GFari; aldiz, eskumena berea zela berretsi zuen GFAk 2019ko urtarrilaren 18an.

7.- ZAEAk, 2019ko otsailaren 18an, gatazka planteatu zuen Arbitraje Batzordean; 8/2019 espediente-zenbakia esleitu zitzaion, eta prozedura arruntaren bidez izapidetu da.

## **II. ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

### **1.- Arbitraje Batzordearen eskumena**

Arbitraje Batzordeak eskumena dauka gatazka hau ebazteko, Ekonomia Itunaren 66.Bat artikuluan xedatutakoaren arabera; artikulu horrek eginkizun hauek ezartzen baitizkio batzorde horri:

«a) Estatuko Administrazioaren eta foru-aldundien artean edo foru-aldundien eta beste autonomia-erkidegoetako administrazioen artean sortzen diren gatazkak ebaztea, bai tributu itunduen lotuneen aplikazioari dagokionez, bai administrazio bakoitzari zenbateko zatia dagokion zehazteko, sozietateen gaineko zergaren edota balio erantsiaren gaineko zergaren baterako tributazioaren kasuetan.

b) Banakako tributu-harremanetako arazo zehatzetan ekonomia-itun hau interpretatzeko eta aplikatzeko orduan administrazio interesdunen artean sor litezkeen gatazkak erabakitzea.

c) Zergadunen egoitza dela-eta sor litezkeen desadostasunak ebaztea».

## 2.- Preskripzioa

Arbitraje Batzordeak 11/2014 Ebazpenean eta Auzitegi Gorenak 2015eko abenduaren 15eko, 2022ko otsailaren 10eko, 2020ko abenduaren 3ko, 2021eko urtarrilaren 28ko eta 2020ko maiatzaren 18ko epaietan (ECLI:ES:TS:2015:5337, ECLI:ES:TS:2022:596, ECLI:ES:TS:2020:4077, ECLI:ES:TS:2021:372 eta ECLI:ES:TS:2020:1010 epaiak, hurrenez hurren), irizpide konstante bat ezarri dute: administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidea izaera publikoko aurrekontu-eskubidea da, administrazioak zergadunaren aurrean duen zerga-eskubideaz bestelakoa; eta administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidearen preskripzio-epea bidegabeko diru-sarrera egiten den unean hasten da, eta ez da eteten zergadunaren gaineko eskumenaren jabetzat jotzen den administrazioak (hirugarren bat izaten da administrazioen arteko harreman juridikoan) zerga-prozeduran egiten dituen jarduketan ondorioz.

Horiek horrela, Arbitraje Batzordeak honako hau

**ERABAKI DU**

1.- Preskribatutzat jotzea administrazioen arteko kreditu publikorako eskubidea 2013ko lan pertsonalaren atxikipenen gainean.

2.- Jakinaraztea honako erabaki hau Zerga Administrazioko Estatu Agentziari, Gipuzkoako Foru Aldundiari eta MSL sozietateari.